

ezagutzen al duzu Donostia?

Uliako barraka

Ulia mendiko itsas aldeko hegiek beti izan dute misterio kutsu bat. Beti-lehen eta orain ere hai-izan dira inguru bakartiak. Bizi izan al da inoiz jenderik hemen? Kontuan hartu behar da mende honen hasieran Ulian 70 baserriatik gora zegoela eta denak zuedela mendiaren hegoaldean bi ezik: Billabiar eta Barraka. Billabiar aspaldi desagertu zen; baina Barraka (Arkaitzarte ere deitua) baserriaren horma zaharrek gaur ere hor diraute zutik paraje ezin hobe batean (Barkuzarren itsasoratzen diren Urumeako kolektoreko ur-zikinak ezik noski). Illurgitako inguru paregabeari begira dago, Animetako Puntak mendebaldeko haize bortitzetatik babesten duenari. Barrakako baratzak lur gozokoak ziren epelak, kresalez lurrituak, eta egizkitsuak.

Baratz hauetan heltzen ziren maiatzeko lehenengo ilar berdeak, eta beranduego lekak eta babarrunak. Donostiako Bretxan saltzen ziren lehenengo ilar berdeak Barrakakoak ziren, zalantzarik gabe kalitate ezin hobeagokoak. Gaur ez da etortzen Uliako Barrakako ilar-berderik azokara, gaur Barrakako baratzak dena sasi!

JOSU TELLABIDE



«Barraka baserriko horma zaharra»

Donostiako kantutegia

J.I. ANSOENAK proposatua



Pobreak


Beste alibiorik pobreak ez daka: negarrez jaio eta bizi arrakasta. Galtzarbean, kolkotan, nonnahi arraskaka, erropetan koipea, zikina ta kaka.

Jendeak, ikustean, hartutzen du lazak, danak pasatzen zaizka ondotik presaka. Nahi baldin badu ibili kalean bueltaka,

ateratu orduko etxetik hanka, mutil txikiak ditu atzetik milaka, azanario edo patata tiraka.

Indalezio Bizkarrondo. Bilintzek (1831-1876) jarri zituen berak hain ondo ezagutzen zuen eta pobrezia deskribapen ozipindua egiten duten bertso hauek. Ez dut uste inoiz kantatzeko izan direnik. Nik behin-behinean ez diet doinurik ezagutu. Baina Alderdi Zaharreko adineko jendeak, gure izeba Agedak esaterako, buruz bazekizkiten eta erreziatari egiten zituzten.

Argitarapen honen edizioko laguntzailer:



kutxa fundazioa

fundación kutxa